BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4807

EBAZPENA, 2013ko irailaren 23koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zortasunaren handitzea dela-eta honako linea elektriko hau onura publikokoa dela deklarazteko dena: 13,2 kV-koa Gernika Kanala Kosta izenekoa, eta bere deribazioak, Ajangiz, Arratzu, Ea, Elantxobe, Ereño, Forua, Gautegiz (Arteaga), Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi eta Sukarrieta udalerrietan.

Erref.: L-7695 ASS/TLE.

Esp.: AT-H-201-085.

AURREKARIAK

Bat.– 2011ko uztailaren 23an, Iberdrola Distribución Electrica, S.A.U. enpresak (San Adrian etorbidea 48, Bilbao) eskatu zuen gorago zehaztutako linea herri-onurako deklaratzea, linea horren zortasuna handitzeak eragiten dien ondasunak eta eskubideak urgentziaz okupatzeko; izan ere, arboladirik gabeko zerrenda handitu egiten da-eta; enpresa horrek dokumentazio egokia aurkeztu zuen.

Bi.– Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren 10. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U. sozietatearen aipatu eskabidea jendaurrean erakusteko iragarkia argitaratu zen, 2013ko maiatzaren 17ko BAOn, 2013ko abuztuaren 22ko EHAAn eta 2013ko maiatzaren 27ko El Correo egunkarian. Iragarkiarekin batera, enpresa horrek desjabetu beharrekotzat jotzen zituen ondasunen eta eskubideen zerrenda argitaratu zen.

Hiru.– 2013ko maiatzaren 10ean, ofizio batzuk igorri zitzaizkien Ajangiz, Arratzu, Ea, Elantxobe, Ereño, Forua, Gautegiz (Arteaga), Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi eta Sukarrieta Udalei, udaletxeetako iragarki-oholetan erakutsi zezaten proposatutako jarduketari buruzko iragarkia. Halaber, 2012ko ekainaren 28an, udal haiei eta Bizkaiko Foru Aldundiari (Ingurumen, Mendi eta Herrilanetako sailak), Urdaibaiko Biosferaren Patronatuari eta Ur Agentziari eskatu zitzaien txosten baten bitartez adieraz zezaten egoki ikusten ote zuten instalazioa onura publikokotzat aitortzea, eta, behar izanez gero, txostena egiteko behar beste alditan eskatuko zen.

Lau.– Jendaurreko erakustaldian zehar, alegazio partikularrik ez da jaso, eta onuradunak onartu egin ditu organoen baldintzak, eta, behar izan denean, organoek eskatutako informazio osagarria aurkeztu dute, eta, behar izanez gero, Eako hondartzaren gainetik doan linearen gaur egungo trazatuaren aldaketa aztertzea.

Bost.– Espedientearen barruan, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlan erraztua sartu da. Azterlan horri Applus Norcontrol, S.L.U. ingurumen gaiak kontrolatzeko organoak aldeko irizpena eman dio, 2013ko uztailaren 26an.

OINARRI JURIDIKOAK

Bat.– Espedientean, arauzko izapideak bete dira; zehazki, honako xedapen hauetan ezarritakoak: Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 26ko 54/1997 Legea; Argindarra garraiatu, banatu,

merkaturatu eta zuzkitzeko jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua; Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legea; Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 3ko 282/2002 Dekretua; Goi-tentsioko airetiko linea elektrikoak zuhaiztietatik igarotzeko berariazko preskripzioak ezartzen dituen 2011ko martxoaren 8ko Energia eta Meategien zuzendariaren Ebazpena; 1302/1986 Errege Dekretua betearazteko Araudia onartzen duen 1131/1988 Errege Dekretua; urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua; martxoaren 24ko 6/2010 Legea; eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (aipatu diren azkenak ingurumen arlokoak dira).

Bi.– Zortasuna handitzeari buruzko baldintzei dagokienez, zortasuna handitzeak ez du inola ere eraginik izango hirigintza-garapenean, gaur egungo lineak dituen mugei eusten zaielako. Aipatutako alegazioari dagokionez, eraginpeko azalera finkak okupatu aurretiko aktak jasotzeko orduan zehaztuko da, baina zuhaitzetarako aurreikusitako 208 m^2-ei eusten zaie, eta titulartasun berria eta lurzoruaren kalifikazioa jasota geratzen dira.

Hiru.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen Energiaren, Meategien eta Industria administrazioaren zuzendariak, apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuan ematen zaizkion ahalmenez baliatuz (2013-04-24ko EHAA), honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Zuhaitzak moztu eta inausteko, lehen aipaturiko ingurumen-inpaktuari buruzko azterlan erraztuan ezarritako baldintzak aplikatu beharko dira.

Bigarrena.– Onura publikokotzat jotzea beherago zehaztutako ezaugarriak dituen instalazioaren zortasunik gabeko zerrenda zabaltzeko:

● Gernika-Kanala Costa D/Z ETD izeneko aireko linea elektrikoa, bere tronkalaren Kostaldeko adarrean honako ezaugarri hauek dituena:

– Zerbitzuko tentsioa: 13,2 kV.

– Eroaleak: 3 (1 x 54,6 mm^2) LA-56.

– Euskarriak: Metalikoak, hormigoizkoak eta zurezkoak.

– Eraginpeko luzera: 23.972 m.

– Hasiera: 9002 zk.ko euskarria.

– Amaiera: 9351 Ea.

– Udalerriak: Ajangiz, Gernika-Lumo, Arratzu, Kortezubi, Forua, Gautegiz de Arteaga, Sukarrieta, Ibarrangelu, Elantxobe eta Ea.

Linea elektrikoaren adarrak:

Adarra	Jatorria (Euskarri-zenbakia)	Bukaera (Euskarri-zenbakia)	Longitudea (m)
Barrutia TZ	9015	907	449,7
Enderikas TZ	9061	1001	22
Oruetas TZ	9075	1202	138,8
Miniategi TZ	1701	1402	59,3
Aguas Arteaga TZ	1709	1502	95,04
San Antolin TZ	1709	8504	479,7
Manantial Olalde TZ	1709	1716	1415,9
Mustei TZ	1715	1604	409,8
Islas TZ	9088	1801	2,7
Islas Castillo TZ	9089	1904	334,8
Islas Bekoa TZ	9107	2003	208,5
Martisolo TZ	9124	2101	27,7
Meorio TZ	9139	2202	99,1
Kanala Gautegiz Arte TZ	9157	2302	13,1,5
Jaunsolo-Sukarrieta TZ	9176	2501	5,4
Arquetas TZ	9189	2601	20,2
Laida TZ	9204	2701	42,2
Alzarra-Laida TZ	9204	2801	56,4
Anzoras Norte TZ	9217	3002	188,4
Anzoras Sur TZ	9214	2901	12,4
Gametxo TZ	9221	3101	34,5
Akorda Ibarrangelu TZ	9232	3202	105,6
Garteiz TZ	9236	3303	309,6
Gendika TZ	9241	3401	14,1
Ogoño TZ	9249	700	51
Laga TZ	9249	3514	958,7
Metxikale TZ	9254	3602	71,8
Sosobal TZ	9256	3706	530,8
Puerto Elantxobe TZ	9259	3804	222,1
Bideoste TZ	9264	3902	124
Frontón Ibarrangelu TZ	9267	4006	466,3
Ibiñaga TZ	9269	4101	30,54
Artetxutos TZ	9274	8301	85,84
Ibarrangelu TZ	9278	4304	389,9
Natxitua TZ	9284	4501	32,58
Aldabaster TZ	9297	4604	371,2
Angeretxu-Beko TZ	9305	4701	17,9
Altxikar TZ	9314	4909	733,9
Txirlo TZ	4901	8701	12,9
Ea TZ	9316	4801	10,1
Bombas Ea TZ	9316	4802	153,2
Piedra TZ	9331	5201	36,6
Punta Ea TZ	9351	5409	832,1

● Gernika-Kanala Costa D/Z ETD izeneko aireko linea elektrikoa, bere tronkalaren Barrualdeko adarrean honako ezaugarri hauek dituena:

– Zerbitzuko tentsioa: 13,2 kV.

– Eroaleak: 3 (1 x 54,6 mm^2) LA-56.

– Euskarriak: Metalikoak, hormigoizkoak eta zurezkoak.

– Eraginpeko luzera: 7.088,8 m.

– Hasiera: 9066 zk.ko euskarria.

– Amaiera: 9283 zk.ko euskarria.

– Udalerriak: Kortezubi, Ereño, Gautegiz de Arteaga, Ibarrangelu eta Ea.

Linea elektrikoaren adarrak:

Adarra	Jatorria (Euskarri-Zenbakia)	Bukaera (Euskarri-Zenbakia)	Longitudea (M)
Garekabe TZ	4410	5921	2274,3
Urriene TZ	5904	5701	100
Arteta-Kortezubi TZ	5908	5605	444,1
Ganeko TZ	5908	5801	41,31
Elanda TZ	5911	6101	29,56
Elorriaga-Kortezubi TZ	5917	6001	14,8
Terlegiz-Kortezubi TZ	4411	6201	78,7
Balneario TZ	4416	6304	202,2
Oma TZ	4428	6434	1740
Santimamiñe TZ	4435	6604	485,6
Uregoiti TZ	4455	6937	2392
Bollar TZ	6908	6701	9,54
Akorda--Ereño TZ	6922	6801	82,02
Gabika TZ	6931	7002	97,6
Ereño TZ	4459	7203	149,3
Antxoste TZ	4466	7402	134,7
Tremoia TZ	4469	7827	2807,7
Muruetagana TZ	8024	7501	122,4
Cendokiz TZ	7817	7603	272,1
Aldamiz TZ	7820	7701	23,1
Basetxetas-1 TZ	4470	7901	26,5
Basetxetas-2 TZ	4473	8001	12,05
Olagorta-Ea TZ	4473	8107	601,9
	4473	8101	601,9
Olagorta-Natxitua TZ	4480	8201	5,1
	9283	4490	5,2

Deklarazio horrek berekin dakar -azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan xedatutakoaren arabera- eraginpeko ondasunak okupatu edo eskubideez jabetu beharra, eta horien okupazioa

lehenbailehen egin beharra. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen diren ondorioak dakartza, 53. artikuluan zehaztutako erregistro-ondorioekin.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, 4/1999 Legean ezarritakoa betez (lege horren bidez, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 23a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDÍA ZULOAGA.